

KALITATE-JOKABIDEA

Azkune Frutari buruz dugun Ikuspegiak adierazten digu bezeroari fruta osasuntsua prezio egokian eskaintzen jarraitu behar dugula, geure artean elkar ulertuz ondo burutzeko lan-prozesuak, une orotan betez kudeaketa-sistemaren eskakizunak, legezkoak, araudiek eskatzen dituztenak, eta nola ez, bezeroari dagozkionak, enplegatua errespetatuz eta harengan konfiantza izanik, etekin ekonomikoa sortuz eta ondasuna gizartearentzat. Hori guztia lortzeko, ISO 9001 arauan oinarrituko gara.

Produktuari buruzko jokabidea:

Gure prozesuak –erosketa, biltegiatzea, salmenta, administrazioa...– bideratu, prozesu horietan esku hartzen duten guztiak kontzientziatuz gure eskuetara iritsi eta bezeroari zerbitzen diogun frutak segurtasun-neurri guztiak bete ditzan, eta horrela, fruta osasuntsu eta freskoa bermatu ahal izan.

Enpresa jokabidea:

- 1- Pertsonak dira enpresako benetako protagonistak. Gure iritzia da enpresa moduan izan dezakegun benetako hazkundera pertsonen, haien gaitasunen, lankidetzaren eta konfiantzaren garapenarekin datorrela.
- 2- Enpresak gizarte-lan bat egiten du gure bezeroei elikagaiak eskaintzean. Fruta arloan dituzten beharrak bete nahi dizkiegu, bai txikizkako salmentaren arloan, pertsonatik pertsonara, bai handizkako salmenta egitean, profesionali: saltokietako arduradunak, jatetxeak, egoitzak...
Geure burua prestatu eta antolatu nahi dugu bezero-multzo bakoitzaren beharrei erantzun ahal izateko. Horretarako, Etengabeko Hobekuntzarako Jardueraz eta kudeaketa eta teknologia arloko aurrerakuntzez baliatuko gara, eta berrikuntzak txertatuko ditugu, gaur egun gauden tokira iristen lagundu digun gauzak egiteko gure modua aurretik jarritz, ardura osoz eta adeitasunez.
- 3- Kontuan izan beharreko beste arlo garrantzitsu bat Enpresaren Administrazioa da. Oinarri-oinarrizkoa zaigu enpresak etekin ekonomiko jarraitu bat sortzea ere, bezeroari begira emandako zerbitzu onaren, enplegatuekin elkar ondo ulertzearen eta gastuen kontrolaren ondorioz.
- 4- Gure bezeroei arreta ona eskaintzeaz eta haiei elikagaiak emateaz arduratzen garen enpresa izanik, eta bezeroek gero horregatik ordaindu egiten digutenez, kontuan izan behar ditugu elikagai beharrez izanik elikagai horiek ordaintzeko zailtasun handiak dituzten edo ordaindu ezinean diren pertsona eta komunitateak ere.